

Xake topaketa

Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegiak, XAKE TOPAKETA antolatu du **otsailaren 20an** (Ihauteri astelehenean), arratsaldeko **5:30ean**. Saioa adin guztietarako pertsoneri zuzenduta dago, haur, gazte zein heldu; baldintza bakarra, Xakean jolasten jakitea da (bakoitzak bere mailan, noski).



Eskola Kirola: LH 5-6 multikirola aztergai

Denbora bat bada hainbat tokitatik kezka bat jaso izan duguna Usurbilen dugun multikirol ibilbidearen inguruan. Landu berri dugun Plan Estrategikoan ere, gai hori landu beharra jasota geratu zen beste neurri batzuekin batera. Horregatik, hausnarketa ireki nahi dugu ereduaren birformulazioa bideratzeko.

Komunitate guztiaren parte-hartzea garrantzitsua izango da: hezitzaileak, kirol elkarteak, gurasoak zein ikasleak. Horretarako hainbat hitzordu eta parte hartzeko modu aurreikusi ditugu eta parte hartzera animatzen zaituztegu.

Otsailak 22 -- Usurbilgo errealitatea, indarguneak eta ahulguneak lan-saioa

Martxoak 15 -- Proposamen konkretuen lanketa lan-saioa

OHARRAK: Saio guztiak, **Potxoenean** izango dira arratsaldeko **18:30ean**.

Bestalde, LH 5-6ko ikasleen ikuspuntua galdetegi baten bitartez jasotzea aurreikusten da.



Usurbilgo Udala

HAUR HEZKUNTZA

Inauteriak

HH 3-6:

Datorren ostiralean, otsailak 17, goizeko **10:30etan** inauteri festa ospatuko dugu Mikel Laboa plazan. Haurrak goizean **zakua eta galtzerdi-abarkak oinetan** jantzita etorriko dira gelara.

Eguerdian, haurrak ikastolan bertan jasoko dituzue beti bezala.

OHARRA: Arratsaldean ere haurrak zakua jantzita bidali, gure inauteri eguna 16:30ean bukatzen baita.

HH 0-3:

Haur Eskolako haurrek patioan ospatuko dituzte inauteriak. Eguraldi ona eginez gero, bertan ospakizuna egiteaz gain hamaiketako jango dute. LH eta DBHkoen bisita jasoko dute.

Oharra: jaialdia ez da gurasoei zuzenduta izango.



Haur Eskolako idazkaritzaren berrantolaketa (GARRANTZITSUA)

Udarregi ikastolako idazkaritzaren berrantolaketa berria egiten ari gara eta idazkaritza osotasunean **(0-16 urte)** eraikin gorrian (Gernika, 11) zentralizatuko da datorren asteleheneetik aurrera. Beraz, idazkaritzarekin harremanetan jartzeko, deitu 943.36.12.16 telefonora edo usurbil@ikastola.eus helbidera bidali mezua.



LEHEN HEZKUNTZA

LH Inauteriak

Gaur, LHko ikasle bakoitzari inauterietako kiroldegiko ikuskizunera sartzeko **txartel bana** emango zaio.

Familiaren batek joan ezin badu, ikasleak txartela tutoreari bueltatzea eskertuko dizuegu, beste pertsona batzuei emateko.



Material-kobrantza

2022/23 ikasturteko **LH-ko eskola-materiala** otsailaren 16an kobratuko dela jakinarazten dugu, **hileko kuotarekin batera**.

Erreziboaren zenbatekoa **35,00 €-koa** izango da.



Zorriak LH2

LH 2ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA

